


Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1998ko urriaren 30a III. urtea

Usurbil, 53. Zenbakia



***Inoiz baino parte
hartze haundiagoa***



Txerrimunik ordainetan



Urte askoan **Irati!** Azaroaren 9an 7 urte beteko dituzenez, zorionak familiaren partez. Muxu handi bat!



Zorionak **Maite!** Urriaren 30ean 14 urte betetzen dituzulako eta neska jatorra zarelako. Muxu handi bat. Etxekoak.



Zorionak **Lukenil!**, gure etxeko mutil pixkorrenari. Urriaren 31n 23 urte dituk eta. Etxekoak.



Zorionak **Txingurri!** Azaroaren 3an erne ibili hadi, eskuluzeko asko ibiliko baituk hiri belarrik tira nahian. Aldez aurretik, hire kontura doan afariaren gonbidapena gustora onartzen diagu. Hire lagunak.



Hara gure tikiya! Urteak joan eta urteak etorri eta zein ondo mantentzen zaren! Badakizu, Patrineko zita pendiente daukagula! Zorionak eta bi muxu!



Azaroaren 2an 13 urte beteko ditu **Eneko Iturriozek.** Zorionak begi polit horri! Muxu asko maiztia etxekoaren partez eta ondo pasa.



Zorionak **Uli familiako aitona, Iñaki eta Juleni.** Azaroaren 10,11 eta 28an pote bat zuen kontura. Santuenetik muxu bana.



Zorionak bioi! Zuen urtebetetze eguna ondo pasa dezazuela eta muxu handi bat. Etxekoak eta lagunak.

Norbaitek familiak, lagunak, aldamenekoak, ezkondu berriak... zoriondu nahi baditu hemen du dohainik zoriontzeko aukera. Argazki bat eta testuan jarri nahi dena besterik ez duzu behar.

Hurrengo alea: azaroaren 13a

Agurrak ekartzeko epea: azaroaren 6a

Hildakoak



1998-10-21
Josefa Ignacia Balerdi Seguro
70 urte
Aginaga



1998-10-21
Pedro Carrera Vazquez
63 urte
Santuenea

Jaiotzak

Josu Otegi Pagola
(1998-10-14)
Kaleberri

Bai, esan?

- | | | | |
|-------------------------|----------|----------------------------|----------|
| • Udala | 37 19 51 | • Taxi geltokia | 36 21 78 |
| • Udaltzaingoa | 36 11 12 | • D.Y.A. | 46 46 22 |
| • Anbulategia | 36 20 13 | • Gurutze Gorria | 27 22 22 |
| • Udarregi ikastola | 36 12 16 | • Gure Pakea egoitza | 37 32 28 |
| • Agerialde ikastetxea | 36 38 95 | • Gure Elkartea egoitza | 37 17 51 |
| • Oiardo kiroldegia | 37 24 98 | • Arrate egoitza | 36 63 40 |
| • Zumarte musika eskola | 37 15 94 | • Eusko Tren informazioa | 47 09 76 |
| • Etumeta euskaltegia | 37 20 01 | • Noaua! aldizkaria | 36 03 21 |

Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkartea
Kale Nagusia, 37
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua/>

Zuzendaria

Olatz Altuna

Kazetariak

Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai,
Josu Aranberri, Garikoitz Udabe

Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino,
Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe
Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier
Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal,
Nieves Aranburu, Luis Aranalde,
Zalao Arnaiz, Maribi Arrospide,
Agurtzane Solabarrieta, Joseba
Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi,
Olatz Leoz, Agustin Esnaola, Izaskun
Zubiria, Olatz Goenaga, Izaro
Aizpurua, Joxe Loidi, Begoña
Arriaga, Urko Manterola eta Joxe
Torregaray.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino.

Eredakzio Kontseilua:

Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Jose
Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu Aranberri,
Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz
Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

Dokumentazioa

Idoia Agirre eta Aintzane Aizpurua

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Txelo Vidal eta Iker
Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Sukaldaria

Joxe Mari Sarasola

Tirada: 2.300 ale**Lege-Gordailua:** SS-668-96**ISSN:** 1136-6818**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

**Azala: hauteskutxa
botuez bete**



Europatik erasoka

**Julian Zarauz
Baserritarra**

Baserriak hustutzen ari dira pixkanaka-pixkanaka. Baserriko gazteek ez dute baserrian lan egin nahi eta Euskal Herrian izan den lanpostu zaharrenetakoa galtze bidean da.

Erakundeek ere ez dute batere laguntzen. Azkenengo eraso Europaetik datorkigu. Azken urteotako politikak gero eta lanpostu gehiago galtzera eta baserria hustutzera eramaten gaitu. Euskal Herriko baserria egoera jasanezinean dago. Egoera honetan, Europaetik proposatu diren neurri berriek egoera horretan sakontzera bideratzen dute baserritarra. Konzentrazioak jarraituko du, produktuen kalitatea ez da ziurtaturik egongo, eta ingurugiroarekiko harremana hauts daiteke.

Momentu honetan nekazaritza politika berria aztertzen ari dira Bruselan. Orain arte, Europako Batasunaren sorreratik aurrekontuen zati haundiena (%60tik gora) nekazaritza politikaren finantzaketarako bideratu dute. Aurrerantzean ordea, diru gutxiago eman nahi dute Europako agintariek. Bide honetatik, 2000 urtetik aurrera nekazaritzarako aurrekontuak gutxitu egingo dira.

1992an Nekazal Politika Batua abian jarri zenetik, urtero mila bat lagunek nekazaritza utzi dute. Horregatik baserritarrok eta nekazari gehienok 2000 Agenda proiektuaren aurka gaude erabat. Europako Batasunak, besteak beste, prezioen jeitsiera izugarria bultzatu nahi du, munduko merkatuan aritu ahal izateko.

Europar datozen sei urteetako nekazaritza politika erabakitzen ari da, eta guk, baserritarrok gure bizimodua defendatzeko gogor saiatu behar dugu. Dagoen diruarekin, gehiago gastatu gabe, posible da beste nekazaritza politika bat egitea, nekazari ertainen aldekoa. Bide berri hori ezinbestekoa da baserria bizi dadin.

Horregatik gabilta baserritarrok berriz ere protestan. Pasa den urriaren 17an manifestazioak egin genituen Gasteiz eta Iruñean, gure behi eta ardiak paseatzera ateraz. Hala ere, gizarteko beste sektoreen laguntza nahi genuke. Nekazaritza sektorea krisian dago, eta sektore garrantzitsua izanik, gizarte osoan izango du eragina.



Usurbilgo Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Ynestrillasek Joxe Antoniori

Noaua! aldizkariko ikerketan sailak Jose Antonio Altuna alkateari

Ynestrillas eta bere lagunek bidali dioten eskutitza eskuratu du. Alkateak pasa den urriaren 16an jaso zuen eskutitza. Eibarko udaleko Herri Batasunak bidalia zela jartzen zuen, baina barruan zetorrena ikusitakoan jakin zuen hori estalki bat besterik ez zela. Guk Zaragozatik bidalia izan dela jakin dugu. Hona hemen eskutitza oso-osorik:

“**Altuna**, hijo de puta, tu política no nos gusta, así que te vamos a hacer entrar en razón. Estamos teniendo demasiada paciencia con gentuza de mierda como tú, y eso no puede ser. Te vamos a dar la misma que los perros asesinos de E.T.A. han dado a tantos españoles inocentes; o sea, ninguna. Vamos a hacer que tú también sufras la violencia, porque tú eres el primero que la tienes que sufrir, por asesino de mierda y por cerdo hijo de la gran puta. Tú, como todos tus amigos de Herribatasuna y de Euskal Herriarrok, eres un desgraciado, y un cerdo asesino y cobarde, y vas a ser una de las víctimas de la violencia que tú y tus amigos habéis sembrado gratuitamente, e impunemente. Si tanto te gusta la violencia, ahora la sufrirás tú en tus carnes, como te mereces; tu y muchos de tus amigos. Limpiaremos la basura, y os daremos la diversión que andáis buscando solo que ésta se transformará en sufrimiento para vosotros y vuestros familiares. Así, **Altuna** y compañía, habrá justicia. Porque aquí en España no hay justicia desde que el venera-

ble Franco murió, y buena prueba de ello es que vuestros asquerosos presos asesinos estén todavía vivos, y pasándoselo bien y todo. Para que haya justicia, hay que matar a vuestros presos, hay que fusilarlos, porque después de asesinar y de masacrar a españoles, no tienen que estar vivos, y riendo, sino muertos, y pudriéndose; a ver cuándo cojones os entra en la cabeza una idea tan simple y tan lógica. Esto díselo a la cerda asesina **Jone Goicelaya**, para que se entere de una puta vez, y deje de tocar ya los cojones a todos los españoles con sus sandeces sobre los presos. Comunícale que no pensamos dejarla viva, porque le tenemos especial asco a gentuza como ella.

Vas a tener que hacer las maletas, **Altuna**, porque tú sobras de España. Pero tendras que hacerlo rápido, porque si no, corres el riesgo de que te metamos unos cuantos balazos; ya te hemos dicho que no tendrás ninguna oportunidad. Tienes que largarte de aquí porque ensucias este país. Ya estás condenado, así que cuéntaselo a tus amigos, y díles que tienes bien claro quién tiene que hacer aquí las maletas: los extranjeros

antiespañoles, los terroristas vascos que torturan al pueblo español. ¿Me has entendido?, por eso tienes que hacer tú las maletas. También te interesa decirle esto al terrorista **Arnaldo Otegui**; dile que él tiene que hacer las maletas inmediatamente, porque si no, seguro que va a regar de sangre su querida tierra. Otegui, tú eres el que tiene que hacer las maletas, tú eres el extranjero, y no la Guardia Civil, que está en su tierra, cabrón asesino. La Guardia Civil tiene que permanecer aquí siempre, porque así, su presencia te recordara que estas en España. Tú eres un hijo de la gran puta, que confunde fuerzas de ocupación con ciudadanos españoles que están en su tierra y en su país, y eso lo vas a pagar muy caro. Tú eres el que estás ocupando por la fuerza tierras que no te corresponden, como Navarra, hijo de la gran puta, asesino; tú eres el opresor de ciudadanos españoles, hijo de perra, y tú encima eres un asesino de mierda y un cobarde; eres un perro terrorista al que hay que matar ya. **Otegui**, ya te queda poco, cada vez menos. Vas a hacer sin querer la campaña de la cuenta atrás. Díez, nueve, ocho, siete...PIM, PAM, PUM.”

**VIVA FRANCO - ARRIBA ESPAÑA
PRESOS DE E.T.A. FUSILADOS
HERRIBATASUNOS AL PAREDÓN**



**ALIANZA POR LA
UNIDAD
NACIONAL**

VIVA RICARDO SÁENZ DE YNESTRILLAS

**XABIER
EDARITEGIA**

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

MAHUKA
*Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu*

*Haur
jantziak*

Pauma

Berriketan



Juliana Zumeta Arruti

Aiako Biraola baserrian jaioa. 42 urte daramatza Usurbilen bizitzen. Urriaren 29an 68 urte beteko ditu. 13 seme-alaben ama eta 16 iloben amona da.



Jaiotzez aiarra, baina urte asko daramazu Usurbilen. Aiarra ala usurbildarra sentitzen zara?

Aiarra ez, aiaamea naiz ni.

Ezkondutik ondoren etorri zinen Usurbila. Non jarri zineten bizitzen?

Rusoaren etxean, gaur egun Maspildegiko Elkartearen dagoen etxe horretan jarri ginen 450 pezetako errentan.

Zergatik deitzen zizaien Rusoaren etxea?

Jabeak 100 duroekin apustua egin eta Errusiara joan zelako. Handik aurrera rusoa bezala ezagutzen zen eta etxea, berriz, Rusoaren etxea.

Etxe horretan jaioak al dira zure 13 seme-alabak?

Ez, lehenengoa Aian jaio zen eta azkenengoa Atxegaldeko etxean. Baina gainontzekoak bai.

Eta, etxean ala erresidentzian jaioak dira?

Batzuk etxean eta besteak erresidentzian.

Desberdintasunik nabaritu al zenuen zuek?

Egia esan, kasu batzuetan etxean baino gutxiago kasu eginda egon nintzen erresidentzian. Gogoratzen naiz errekonozimendua egin zidaten batean nola esan zidaten hainbeste ume izana banengoen, banekiela erditzeko minak zer ziren, bai, eta minak hastean kexatzeko.

Eta, kexatu al zinen?

Gauean kexatu nintzen eta artean frexko nen-goela. Handik ez dakit zenbat denborara kexatu eta inor etortzen ez zela ikusita, ohetik jeiki, logela erdian alaba "egin", ohera sartu eta orduan etorri ziren.

Beste kasu xebrerengoren bat ere izango duzu.

Bai, komunean jaiotako bi alaba ere badituzte. Eta etxean "non hago?" galdetutakoan "jaiotetxian!", erantzuten zuten. Horrelako istorio pila batekin egindako umeak ditut nik.

Hazteko garaian, lan handia emandakoak al dira?

Ez, oso errazak izan dira. Sekula ume batek ez dit gaurik galduarazi.

Familia ugaria izateagatik laguntzarik jaso al duzu?

Azkeneko semea jaio zenean 20.000 pta. eman zizkiguten 13 haur zirelako. 15ekin etxea ematen omen zuten. Bestela ez dugu inolako laguntzarik izan, baina eskatzeraz ere ez gara joan.

Soldata batekin ateratzen zineten aurrera, orduan.

Bai. Ez zen orain bezala "hau nahi al duzue?", hura nahi al duzue?. Atzo hau jan zenuten, gaur hau ekarri dizuet". Zegoenean zegoena eta dena gustura jaten zuten.

Lanaren ordaina iritsi al zaizu orain jubilatutik ondoren?

Bai, bai, orain urrea bezala bizi gara. Zer falta zaigu ba?

Zahar egoitza berria ere bai. Lehen baino hobeto?

De marabilla! Igualeko zerua daukagu! Dena berria, zigarrorik ere batere ez... Ez genuen guk espero bizi ginen artean horrelako lekurik ikusiko genuenik. Markesaren etxean bezain ondo gaude.

Ainhoa Azpiroz

PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Xabier Carbayeda eta Goyo Martin

Kale nagusia, 44- behea
I.A.SARTE-ORIA



TEL 943 36 61 97

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

TXOKOALDE

Inaxio Labaka



Perretxikoak, angulak eta sagardoa

Perretxikoak handik, perretxikoak hemendik... Aurten ere zer hitz eginik izan da honen inguruan. Dirudenez inoiz baino jende gehiago ibili da perretxiko bila eta perretxikoak ere ez dira atzean gelditu: uzta politak izan omen dira inguruko txokoetan.

Andatzako txokoak ere ondo arakatuta egongo dira. Xextuak hartu eta txoko ezkutuenak arakatzen ibili direnak asko izan omen dira. Beste batzuek, berriz, badakite nora joan. Urteetako esperientzia izaten dute hauek, eta aurretik perretxiko leku onak zein diren

ikasita dute. Askotan onddo eta gibelurdinez beteta ekartzen dute hauek xextua, eta ez dute esaten nora joaten diren perretxiko bila.

Jatena alde batera utzi eta Usurbilen oso preziatua den edari bati buruz hitz egitea tokatzen zait orain. Sagardoa egiten hasiak dira Txokoaldeko baserri batzuetan eta kupeleeratze prozesua laister amaituko dute, nahiz eta aurten hementengo sagarra asko ez den izan, sagar jotzen aritu dira jo eta ke.



Esaten dutenez pasa den urtean baino askoz sagar gutxiago eman dute inguruko sagastiek.

Azkenik, angula denboraldia ere laster hasiko da. Anguleroak dagoeneko beren alak prestatzen hasiak izango dira.

KALEBERRI

Ines Kamino



Erlojua txuritu egin zaigu

Elizako erlojua txuri gelditu zaigu azken aste hauetan. Badira urte batzuk goi alde horretara igo eta erlojua margotu zutela. Txuri gorritz margotu zuten eta behetik begiratuta deigarria zen hura. Orain garbitu egin dute. Elizaren dorrea garbitzen eta konpontzen egon direla baliatuz, erlojua ere garbitu eta txuria utzi dute.

Bestalde, eta elizarekin jarraituz, dorrea garbitu eta zenbait konponketa egiteko lanak amaitu dituzte. Azken bi hilabeteotan ezohizko itxura izan du dorreak eta Etxebeste kaleko pasabideak. Dorrean gora aldamio altu bat jarri zuten eta

sokaz lotuta, bere lana egiten hor ibili dira langileak. Etxebeste kaletik Kale Nagusira joan nahi izan ezkerro, berriz, "tunel ilunetik" pasa beharra izan dugu. Dorretik botatako zikin eta harri koxkorretatik babesteko jarri zuten aldamiozko "tunel" hau.

Bestalde, ia eguneroko albiste bihurtutakoarekin natorkizue: lapurretak. Orain ere

lapurretak izan dira, bai Zubeldia kirol denda baita lantegi batean ere. Kirol dendan lapurtu zutenak ikusi zituzten, baina ezin izan zituzten harrapatu.



ATXEGALDE

Gure txikiak Kalezartik Atxegaldera

Azkenaldian Atxegaldeniaz baino autobus zarata gutxiago somatzen dugu. Izan ere, Udarregi ikastolako hau-



rrak Kalezartik Atxegaldera etorri zaizkugu, Ageri-aldera, hain zuzen ere. Guraso batzuen hitzetan, aldaketa hoberrak izan da. Ageri-aldeko gelak haundiagoak dira eta lehen denbora asko galtzen zuten autobusa zela eta. Halere, leku berriak desabantailak ere baditu; jolastokia hartxintzarrez josidago eta ez dago txirrista

Amagoia Mujika



rik, Kalezarren ez bezala. Gainera, edozein sar daiteke jolastokira eta hau arriskutsua izan daiteke haurrentzat. Hau ikusirik, komenigarria litzateke hesi egokiagoa jartzea.

Beste gai bati helduz, obrak amaitzeaz daude eta zaborra uzteko toki berriak ditugu. Lehen kalean bertan uzten genuen zaborra eta orain leku egokiago bat jarri digute honetarako. Halere, zaborra begi bistan geratzen da, inongo babesik gabe eta katuek berdin jarraituko dute zabor poltsak puskatzen. Ez lirateke gaizki etorriko zaborrontzi batzuk.

KALEZAR

Puntapaxeko zubia konpontzen ari dira

Ainara Uribe



Uholdeek bazter asko txikitu zituzten, horietako bat Usurbildik Kalezarrera joateko pasa behar den Puntapaxeko zubia. Udaletxea pixkanaka-pixkanaka txoko guztiak konpontzen ari da, eta oraingo honetan, Puntapaxeko zubiari tokatu zaio.

Bere momentuan zertxobait txukundu zuten, baina barandilak aldi baterako jarrita zeuden eta inguru guztia zakar-zakar zegoen. Egun hauetan konpontze lanetan aritu dira. Lehengo barandila arriskutsuen partez igeltsuz egindako sendoago batzuk jarri dituzte. Aranerreka ere desbideratu

egin dute. Lehen makur bat egiten zuten zubi azpitik eskubitara joanez. Orain, konpondu ondoren, bide berrian zuzen joango da.

Zubi ingurua txukuntzen ibili direla aprobeztatuz, zubia pasa ondoren datorren bihurtunea zuzendu egin dute. Behin lanean hasi ezkerre ondo egin dute bidea zabalitzen.



Oraindik lanak bukatu gabe daude, baina ea txukun-txukun eta dotore-dotore gelditzen den Puntapaxeko pasabide berria. Guztiok eskertuko genuke.

SANTUENEA

Izokinik ezin ikusi

Izokinak igotzen hasi direla eta, berriz ere lanean ibili dira Orbediko presa aldamean dagoen pasabidean. Orain dela denbora dexente jarri zuten leku hau. Bertan, izokinak nola igotzen ziren ikusi



ahal izango zela esan zuten, baina denbora gutxira, Oria ibaiaren urak igo eta gaiztotu zirenean, lurrez beteta eta zikin-zikin gelditu zen guztia.

Egoera hartan ezinezkoa zen izokinak ikustea eta jendeak

nola igotzen ziren ikusi zezakeen lekua itxi egin zuten.

Orain ere zertxobait egin dute inguru horretan. Txoko guztiak txukuntzen ibili dira eta sarrera hobeto itxi besterik ez

dute egin. Beraz, hemendik aurrera ere guk ezingo ditugu izokinak ikusi. Batzuk igo direla esan dute, baina adituek bakarrik ikusi ahal izango dituzte, guk lehen bezala jarraitzen dugu: izokinik ikusi gabe.

Bestalde, ezin Zorrotzeko zubia ahaztu. Nahi baino zailagoa egiten zaigu zubi honetaz ahaztea. Lanak bukatuko balituzte beste nonbaitera begiratu genuke, baina oinezkoentzako espalo berria bukatuta dagoela dirudienean, azken ikuituak ematea falta da. Hesi horiek hor jarraitzen dute oraindik eta garbitzeko premia ere badu.

Pako Agudo



URDAIAGA

Usurbilgo ezkontza sonatuena

Ezkontza kontuekin nator oraingo honetan. San Estebango ermitan gero eta ezkontza gehiago ospatzen dira. Hirigunetik urruti dagoen txoko hau, lagun arte eta famili artean, intimitate osoarekin ezkontzeko lekua bihurtu da. Auzoko eta Usurbilgoez gain, kanpotik ere etorri izan dira ezkontzera. Orain gainera, dotoreçdotore jarria dago ermita ingurua. Lehen leku arazoak izaten ziren kotxea apartatzerakoan, baina azken hilabeteetan egin dituzten obrek askoz hobeto dago orain.

Ezkontzeko promesa egin duen bat auzoan nahiz

Usurbilen ondo ezagutzen dugun gizon bat da: Albarito, hain zuzen ere. Azken urteetan ezkondu egin behar duela errepikatzen du behin eta berriz eta azken asteetan ere hori esan eta esan ari da. Norekin? Top sekret. Ezkondu behar duen eguna jartzean orduan esango omen du, eta *Noaia!* aldizkariari horren esklusiba emateko prest dago.

Ez hori bakarrik, ezkontza egunean Noaia!k bakarrik atera ahal izango

ditu argazkiak. Beste komunikabideek ezin izango dute San Estebango ermitan argazkirik atera. Hori bai,, ezkontzara herri guztia gonbidatuko duela esan digu Albaritok.

Eider Jauregi



AGINAGA

Piperrak, ehiza, angulak, seinaleak...

Izaro Aizpurua



Behin San Praixkuak pasata negua ganean, eta gure auzoa hasi da dagoeneko negu parteko lanetan.

Lehendabiziko aldaketa sorotan antzemango dugu. Uda osoan zehar berde-berde egon diren eta hainbeste jenderi zeregina jarri dioten piperrak eman dituzte azken aleak. Aurtengoa oso piper urte ona izan da. Nahikoa piper ba omen da inguruko taberna eta biltegietan. Orain, berriz, sagarra biltzen ari da baserritar jendea.

Negua gertutasunaren beste zeinu adierazgarri bat hegazti pasarak izaten dira,

eta bada honetaz ohartu denik ere. Aginaga aldeko mendiak ehiztariz beteak egoten dira asteburuetan, nahiz eta gehientxoenetan perretxiko aleren bat edo beste poltsikoan hartuta bueltatu behar izaten duten etxera. Hala ere, tiro batzuk entzuten ditugunez norbaitek zerbait ikusia izango du.

Angulek ere aurkitu omen dute urteroko bidea ibaian gora. Oraindik goiz samar izanik, ale batzuk besterik ez dira ageri. Hala ere, angulazaleek alak eta gainerako traste guztiak prestatuta dituzte.

Bestalde, plazatik Izpiraga aldera eta hemendik Sekaña aldera doazen bideak seinalizatu ditu udalak. Orain dela gutxi bidea berri zuten galleta botaz, eta orain, "Eman bidea" eta "Stop" seinaleak jarri dituzte bi bidegurutzetan.



ZUBIETA

Plan partziala onartu da

Xabier Arregi



Donostiako udalak urriaren 14ko plenoan eman zion behin-behineko onarpena "Zubietako Zabalpena" izeneko Plan Partzialari. Plan horrek plaza inguruko urbanizazioaren oinarritzko baldintzak zehazten ditu. Erabaki honek berretsi egi-

ten du, aldaketa batzuk gora-behera, iazko uztailetik airean zegoen hasierako onarpena. Aldaketarik aipagarriena aktuzazio-sistemari dagokion da. Hasierako onarpenean konpentsazio-sistema aurrikus-

ten baten ere, oraingo onarpenean kooperazio-sistemaren aldeko apustua egin da. Horrek esan nahi du, hitz gutxitan esanda, udalek hartuko dutela beren gain plana aurre-

ra eramateko gestioaren ardurara. Alegia, lur-jabeen artean konponketarik izan ezean, udalek hartuko dutela plana gauzatzeko inizatiba eta erantzukizuna.

Usurbilgo udalak urriaren 27an plenoan landu zuen gai hau, eta segidan Diputazioari dago-kio bi udalen akordioak berrettea eta planari behin-betiko onarpena ematea.

Esan beharrik ez dago zein garrantzitsua den plan hau zubietarrantzat. ARITZA etxebizitza-kooperatibak hogeitau urte baino gehiago daramatza lanean horrelako plan bat aurrera ateratzeko. Hortik atera kontuak.



Txaramuntoko etxeak bide onetik

Zer gertatzen da Txaramuntoko etxeekin? Noiz egin behar dituzte etxe berriak? Galdera ugari egin daitezke honen inguruan. Hala ere, dirudienez urteetan aurrera doan bide ilunak argia ikusi du. Promotore batek Txaramuntoko etxebizitzaren konbenioko puntu baten aldaketa eskatu du 3 jabeekin akordioa sinatu aurretik. Datorren urriaren 27ko plenoan onartuko da aldaketa hori.

Promotore honen esanetan Txaramuntoko jabeekin etxeak

egiteko akordio batera iritsi da, baina sinatu aurretik udalak jabeekin egin zuen konbenioko puntu baten aldaketa eskatu nahi izan du.

Zein da aldaketa? Udalak eta jabeek konbenioa sinatu zutenean, lizentzia eman ondoren, Txaramuntoko etxeak erosterakoan 6 hilabetetan lehenetsuna usurbildarrek izango zutela jasotzen zen puntu batetan. Promotore berri honek epe hori bi hilabetera jeistea eskatu du. **Joxe Antonio Altuna** alkatearen

esanetan aldaketa hori onartzeko prest daude. "6 hilabeterako epea jarri genuenean jarraizagatik jarri genuen. Horregatik epea 2 hilabetera jeistea eskatu dugutenean ez dugu oztoporik jarriko. Gure ustez denbora hori nahikoa da". Hala ere, promotoreak etxebizitzak saltzeko lizentzia eskatzean, usurbildarrei Txaramuntoko etxeak salgai jartzera doazela esateko deia egin daitekeela argitu nahi du alkateak, "honela 2 hilabete izan beharrean 3 izango lirateke".

Beraz, guzti hau ikusita Txaramuntoko etxeak egiten hasteko gutxiago falta dela dirudi. Guztira 52 etxebizitza egingo lirateke, 31 libreak eta 21 babes ofizialekoak, baina alkatea oraindik mesfidati agertzen da. "Txaramuntoren inguruan honela hitz egiteak beldurra ematen dit. Urte asko daramazkit esandakoak esaten eta gero ez dute egiten". Oraingo honetan promotorearen hitzak daude tartean eta honek egiteko konpromezua hartzen badu aurrerapauso handia izango litzateke.



Etxealdiako bigarren fasea konkurtsora

Etxealdia sartu eta bertatik irtetzeko bide berriaren lehen fasea amaitu dute. Azken hila-beteetan lur mugimendu handia izan da eta bide berria nondik nora joango den ikusi daiteke ja. Bidea egokitu da, betelana ere egin da, baina orain bigarren fasea dator.

Pasa den urriaren 27ko plenoan onartuko ziren bigarren fase hau konkurtsora ateratzeko oinarriak. Bigarren fase honetan gelditzen den guztia egingo da eta obra honen aurrekontua 29.080.335 pezeta-koa izango da. Alde batetik azpiegitura lanak daude: urak hartzeko bideak egin behar dira etab. Beste aldetik oinezkoentzat espaloia egin behar da. Azkenik bidea asfaltatzea etorriko litzateke.

Lan hauek egiteko konpromezua hartzen duen enpresak bide berria eraikitzeko lau hilabeteko epea izango du.



Plaza libreak Lanbide Hastapenerako ikastaroetan

Aurten, 1998/99 ikasturte-
Arako Usurbilgo Udalak
Mendebal Donostialdeko
eskualdeetako herrien lanki-
detzarekin ikastaro batzuen
eskeintza egin du. Nahiz eta
lanbide gehienetan lekurik ez
egon, badaude oraindik bete
gabeko zenbait plaza.

Lanbide Hastapenerako pro-
gramak eskaintzen duen
aukera zabalaren barruan
bete gabeko zenbait plaza
daude oraindik. Usurbilen egi-
ten direnetan ez dago lekurik,
baina bai beste herrietakoan.

Lasarte-Orian egin daiteke-
en lorategi eta mintegietan 2
plaza daude libre, 1 automo-
bilaren mekanikan (Hernanin)
eta beste bat automobilaren
txapa eta pinturan
(Andoainan).

Ikastaro hauek, ikasten jarrai-
tu nahi ez edo ezin duten 16tik
20 urte bitarteko gazteei,
neska nahiz mutileri, zuzenduak

daude. Ikastaroak dohainik
dira eta garraioak ere ez die
ikasleei gasturik suposatzen,
kontratutako autobus batek
eramaten baititu ikastexeeta-
ra.

Ikastaro hauen barruan, era
praktiko batean lanbideari
lotutako gaiak aztertzeaz gain,
gai sozialak eta laboralak eta
lanbideari lotutako oinarriko

heziketa lantzen dira. Ez hori
bakarrik, kirolek eta irteerek
badute bere tokia Lanbide
Hastapenerako ikastaro haue-
tan.

Momentu honetan ezer ga-
be baldin bazaude jo ezazu
udaletxera edo deitu 943-
371951ra eta galdetu **Idoia
Belokirengatik**, berak emango
dizu guzti honen berri.



Hilerri berria egiteko oinarriak onartuko ditu udalak

Hilerri berria egiteko lanak
konkurtsora ateratzeko
oinarriak ere urriaren azken
astarteko plenoan onartuko
dira. Zazpi urte dira proiektua
egin zenetik eta, aldaketa
batzuk izan baditu ere,
Luciano Pagegiren proiektua
aurrera ateratzeko oinarriak
jarri dituztenez, onartzea bes-
terik ez da falta.

Hilerri berria egiten hasteko
ez da asko falta, ez behintzat
proiektua aurrera atera zene-
tik pasa den denbora kontu-
tan hartzen badugu. Mas-
pildegi gain deitutako lur saile-
an egingo duten hilerria egite-
ko lanak konkurtsora ateratze-
ko oinarriak eta finantziazioa
onartuko dira urriko plenoan.

Jarritako oinarriari onspena
eman ondoren, konkurtsora ire



kiko da, eta bertan eskaintza
onena egiten duen enpresari
emango zaio hilerri berria egi-
teko ahalmena.

1990. urtean erabaki zen
behin-betiko non egingo zen
hilerri hau. Ordutik hona
proiektua egin da, lurrak ere

erosi dira, baina Eroskiko
proiektua aurrera ateratzeko
suposatuko lukeen laguntza
ekonomikoaren zain egon
ondoren, badirudi laister hasi-
ko direla 150 milioi inguruko
aurrekontua izango duten
lanak.




Usurbildarren %73,1ak eman zuen botoa

Orain arte egin diren hauteskundeetako partehartze portzentaiak gainditu ziren usurbilenpasa den igandean egin ziren Eusko legebiltzarrerako hauteskundeetan.

Usurbildarren % 73,1a hurbildu zen zegokion sekziora botoa ematera. Beraz, botua eman

zezaketen 4420etik 3227k eman zuten botoa. Alderdi politikoei dagokionez, E.H. hautes-elkarteak eskuratu zuen boto gehien, 1475. EAJ-PNVk 628 lortu zituen, 376 EAK, 326 PSOEk, 261 PPK eta 82 I.Uk. Urriaren 25ean normaltasuna izan zen nagusi.

ALDERDI POLITIKO DESBERDINEN BILAKAERA USURBILEN



1990. HAMARKADAKO HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK USURBILEN

	Aut.90	Udal.91	Oro.93	Eur.94	Aut.94	Udal.95	Oro.96	Aut.98
EA	502	595	466	314	395	542	460	376
EAJ	489	558	441	377	551	698	550	628
HB/EH	1070	1255	1113	1102	1148	1316	1109	1475
IU	14	0	102	137	144	0	124	82
PP	50	60	139	143	143	129	206	261
PSOE	436	316	592	304	315	249	570	326

Urriaren 25eko hauteskundearen emaitzak sekzioz-sekzio

1.sekzioa. Kaleberri, Etxealdia eta Atxegalde

	Alderdiak	1. mahaia (A-K)	2. mahaia (L-Z)	Guztira
Zentsoa: 1722	EA	82	77	159
Emandako botoak: 1315	EAJ/PNV	166	105	271
	EH	347	248	595
Abstenituak: 407	IU	20	16	36
	PP	48	52	100
Boto zuriak: 16	PSOE	66	64	130
	UA	0	1	1
Nuloak: 4	Par. huma.	2	3	5
	P. Ley. Na.	2	0	2

2.sekzioa. Aginaga, Santuenea, Txokoalde eta Urdaiaga

	Alderdiak	1. mahaia (A-K)	2. mahaia (L-Z)	Guztira
Zentsoa: 1118	EA	42	42	84
Emandako botoak: 774	EAJ/PNV	69	72	141
	EH	205	181	386
Abstenituak: 344	IU	10	7	17
	PP	34	29	63
Boto zuriak: 5	PSOE	24	38	62
	UA	0	0	0
Nuloak: 6	Par. huma.	3	1	4
	P. Ley. Na.	2	0	2

3.sekzioa. Kalezar, Olarriondo, Galtzaragaina eta Zubieta

	Alderdiak	1. mahaia (A-K)	2. mahaia (L-Z)	Zubieta	Guztira
Zentsoa: 1580	EA	50	61	22	133
Emandako botoak: 774	EAJ/PNV	84	87	45	216
	EH	177	211	106	494
Abstenituak: 344	IU	16	12	1	29
	PP	54	41	3	98
Boto zuriak: 5	PSOE	60	72	2	134
	UA	0	0	0	0
Nuloak: 6	Par. huma.	0	1	0	1
	P. Ley. Na.	1	0	1	2

Herriko baserriak aztertzeke ikerlana martxan

Noaua! Kultur Elkarreak antolatutako beka eskuratu zuten Ziortza Gazte Elkarteko Kultur Tailerrekoak hasi dira Usurbilgo baserriak aztertzen. Dagoeneko zenbait baserriatik pasa dira eta orain arteko harrera ona izan da. Lanak duen garrantziagatik baserriarrei ahalik eta laguntzarik haundiena ematea eskatu nahi zaie.

Usurbilgo baserriak auzoz auzo aztertzeke proiektuak irabazi zuten Usurbilgo herriari buruzko ikerlanak egiteko Noaua! Kultur Elkarreak atera zuten beka. Ziortza Gazte Elkarteko Kultur Tailerrekoak aurkeztutako proiektua gauzatzen hasi da, nahiz eta aldaketa batzuk izan dituen.

Alde batetik, ikerlana zuzendu eta aholkularitza lanetan **Josu Tellabide** arituko da. Josu aditua da lan honetan eta honelako azter-



Usurbilen dauden baserri guztiak ez dira berdinak. Batzuk garrantzitsuagoak dira besteak baino. Horregatik, ikerlan honetan, informazio aldetik aberatsenak diren baserriak gehiago landuko dira

keta ugari egin ditu. Horrez gain, Usurbilgo baserriak ondo ezagutzen ditu. Honekin batera, Noaua! Kultur Elkarteko ordezkari batzuek eta Ziortzako beste batzuek jarraipen batzordea osatuko dute.

Beste aldetik, baserrien kokapena eta ingurunea, arkitektura, historia eta bertako iharduera aztertzen ari dira Ziortzakoak. Guzti hone-

kin, gerora begira kontsultak egiteko informatizatutako datu base haundi bat osatu nahi da.


Baserri bakoitzaren argazkiak aterako badira ere, baserriaren lehengo argazkiak eskatuko zaizkie baserriarrei. Honekin batera, etxean dituzten aiton-amonen edo familiarreko argazki zaharrak erakustea ere komenigarria izango litzateke.

Lapurreta Zubeldia kirol dendan



Kale nagusian dagoen Zubeldia kirol dendan lapurretan egin zuten pasa den urriaren 18an. Gaueko 24.15ak aldera dendak Labe goxo aurrean duen kristala puskatu eta barrura sartu ziren lapurrak. Ez zuten kirol materialik eraman, baina dendako dirua gordetzeko makinarekin atera ziren sartu ziren leku beretik. Zubeldia kirolak dendako dendariaren esanetan oso diru gutxi zegoen makinan. Dirua gordetzeko makinak asko pisatzen bazuen ere, inguruko bizilagunak gerturatzeko lapurrek alde egin zuten. Izan ere, bizilagunak kristal hotsa entzun eta berehala inguratu ziren denda zegoen lekura.

ARRYTI
harategia



Kale Nagusia, 2

Telf.: 943 37 04 81




Kale Nagusia, 9
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

USURBIL

IV. ESKULANGINTZA AZOKA ETA ERAKUSKETA

Aitzaga elkarteak, udalaren laguntzarekin laugarren urtez eskulangintza azoka eta erakusketa antolatu du aurten ere. Azaroaren 1ean goiz parte osoan herriko artisau desberdinek urtean zehar eta urteetan zehar egindako lanak ikusteko aukera izango da. Aurtengo berezitasuna uztarri erakusketa izango da. Uztarri desberdinak ikusteaz gain beren erabilera nolakoa zen erakutsiko dute. Ikustekoa bakarrik ez, probatzen ere izango da, taloa jan eta sagardoa zizarratik hain zuzen



Zubietan bada saria irabazi duen txakur bat. Ez da artzai txakurra, ez baitu ardiak maneiatzeko trebezia haundirik, baina Iruñean pasa den urriaren 4an izan zen txakur erakusketan 2. saria lortu zuen. Bi urte eta erdi ditu eta **Xabier Zaldueña** da. Gazteagoa zenean ere irabazi zuen sari bat. Geroztik ez dute gehiago erakusketetara eramán, baina bi urte eta erdi egin dituenean, Iruñeako erakusketara joan eta bigarren saria lortu du "bulldog ingles" txakurra.

ere.

SANTU GUZTIEN EGUNA AZAROAREN 1EAN

Urteko hamaikagarren hilabetearekin hasteko Santu guztien eguna ospatuko da azaroaren 1ean. Usurbilgo bi hilerriak lorez beteko dira, egun horretan herritar ugari gerturatzen baita hildako senide eta lagunak gogoratuz. Hilerrri berria egiten laster hasiko direla badirudi ere, Atxegaldeko hilerri zaharrak aurpegia aldatuko du egun batean bada ere. Aginagarrak, berriz, Aginagako hilerrian izango dute zita azaroaren 1ean ospatzen den



Urtea bukatzen ari zaigula! 1999a gerturatzen ari dela gogoratu ziguten Aitzaga Elkartearen Argiaren egutegia 99a aurkeztu zuten **Ixabel Bereziartua, Pello Zubiria** eta **Joxe Mari Irazustak**. Argia astekariaren ekipoak argitaratzen duen zortzigarren egutegia da datorren urtekoa eta 850 pezetatant eskura daiteke. Beste jende ezagun askorekin batera, **Jakoba Errekondo** usurbildarra eta **Pello Zubiria** aginarragak parte hartu dute besteak beste egutegi hau egiterakoan.



Udazken eta negu parteko dantzaldi edo erromeriak hasi ez badira ere, noizean behin aurrez iragarri gabeko erromeria inprobisatuak izaten ditugu Usurbilen. Urriaren 16a izan zen egun horietako bat. Frontoi inguruan bizi zarenok agian entzungo zenituzten egun horretan soinu txikiaren doinu gozoak. **Joseba Tapia** eta "**Eixeta**" izan ziren soinu-jotzaileak, baina dantza tradizionalak lantzen jardun zuten gehiago izan ziren. Argazkira begiratu besterik ez duzu.

Andatza
karrozeria
Gumer Sánchez



Antinea Elkarte

Loreak - Lore landareak
Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

biberoak
Aranburu

Santu guztien egunerako
hemen aurkituko duzu
lore-sorta eta zentroen
aukera zabala



Villa Aingeru
☎ 943 36 64 60
Aginaga

Pello Sasiain: "Ironman proba egin nahi nuke"

Duela lau urte parte hartu zuen Pello Sasiainek bere lehenengo triatloian eta orduz tik zeharo zaletu da kirol honetara. Berak argi dauka afizioz egiten duela eta bere helburua frogara ondo bukatzea izaten da. Halere, postu ona lortu ezker, hobeto.

Zer da triatloia?

Triatloian hiru frogara daude. Lehendabizi igeri egiten da, gero bizikleta eta azkenik korrika.

Triatloi motak al daude?

Bai, hiru mota daude. Txikiena Spring-a da, 1500 metro igeri, 40 kilometro bizikletan eta 10 korrika. Ondorengoa Media da, igeri 2700 metro, 80 bizikletan eta 20 metro korrika. Eta haundia, Ironman deritzona, 3800 metro igeri, 180 bizikletan eta gero maratonia korrika.

Zuk zein egiten duzu?

Txikiena. Hau da Spring esaten zaiona eta orain olimpiadako kirol izango dena.

Berandu samar hasi zinen...

Bai, berandu. Bat batean hasi nintzen. Kirol polita da, denetik du; igeri egiten duzu, bizikleta eta korrika.

Zein da zuri gehien gustatzen zaizuna?

Igeri egitea. Hobeto ibiltzen naiz igeri egiten. Gutxienean bizi-


kleta, gustatzen zait baina denbora gutxi daukat. Eta asko gustatzen zait bizikleta utzi eta bukaeran korrika egitea.

Ordena beti berdina al da?

Bai, lehenengo igeri, gero bizikletan eta azkenik korrika.

Noiz izaten dira triatloiak?

Ekaina inguruan, udara datorrenean. Baina aurretik duatlonak izaten dira, korrika, bizikleta eta bukaeran korrika. Igeri egiten ez denez, gutxiago gustatzen zaizkit. Sasolan jartzeko egiten ditut.



Asteazken zehar zein entrenamendu egiten duzu?

Goizetan 7.00etan igerilekura joaten naiz, gutxienez orduerdi bat eta denbora badaukat, ordubete. Gero arratsaldetan korrika; orain bizikleta utzi egiten dut, Behobia eta Maratoia egin nahi baititut. Gero berriz hasiko naiz bizikletan.

Zein da zure helburua triatloian?

Bukatzea, ni beti joaten naiz ondo bukatzera. Bat utzi dut bukatu gabe, aurten Gasteizen. Bero haundia egiten zuen eta utzi egiten nuen. Sufritzen dut baina ez lehertu arte. Nik hurrengo egunean lanera joan beharra daukat. Triatloian oso garrantzitsua da zure mugak ezagutzea. Aurten bertan Zumaian mutil bat hil da bihotzekoak emanda.


Zenbat triatloi egiten dituzu?

Nik hiru bat edo egiten ditut, ingurukoak; Donostian, Gasteizen, Zumaian...

Etorkizunean zein asmo dituzu?

Ironman bat egin nahi dut. Ibizan edo Lanzaroten izango da proba hau. Lanza-rotekoa oso gogorra da, haizea, beroa... Ahal izan ezker Ibizakoa egin nahi nuke. Ea aurten Zarautzeko Media egiten dudana eta gero ikusiko dugu.

Amagoia Mujika



JOSU ARAMBERRI
ARIZTI

"apelliduak
abizendu"

URRIAK 30 ostirala

- Aitzaga elkarteak antolatuta, lau eta erdi barruan, **eskuz binakako partiduak** pelota goxoarekin. Ilunabarreko 20.00etan hasita.

URRIAK 31 larunbata

- **Futbol partidua** 2. kadete mailan (M): **Hernani - Usurbil F.T.** Hernaniko futbol zelaian.
- 1. errejional mailako **futbol partidua** (M): **Usurbil F.T. - Ilintxa.** Arratsaldeko 15.30etan Harane futbol zelaian.
- 2. nazionaleko **eskubaloi partidua** (M): **Escolapios - Usurbil K.E.**
- Kadete mailako **eskubaloi partidua** (M): **Loiola - Usurbil K.E.**
- Jubenil mailako **eskubaloi partidua** (M): **Ormaiztegi - Usurbil K.E.**
- Kadete mailako **eskubaloi partidua** (N): **Usurbil K.E. - Hernani.** Arratsaldeko 17.00etan Oiardo kiroldegian.
- Jubenil mailako **eskubaloi partidua** (N): **Usurbil K.E. - Urnieta.** Arratsaldeko 18.30etan Oiardo kiroldegian.
- Aitzaga elkarteak antolatuta, lau eta erdi barruan, **eskuz binakako partiduak** pelota goxoarekin. Ilunabarreko 20.00etan hasita.

AZAROAK 1 igandea

- **Futbol partidua** 2. jubenil mailan (M): **Usurbil F.T. - Urnieta.** Harane futbol zelaian.
- Nesken errejional mailako **futbol partidua** (N): **San Ignacio - Usurbil F.T.**

AZAROAK 6 ostirala

- Aitzaga elkarteak antolatuta, lau eta erdi barruan, **eskuz binakako partiduak.** Gaueko 20.00etan.

AZAROAK 7 larunbata

- **Futbol partidua** 2. kadete mailan (M): **Urnieta - Usurbil F.T.** Urnietako kiroldegian.
- **Futbol partidua** 2. jubenil mailan (M): **Usurbil F.T. - Texas Lasarte.** Harane futbol zelaian.
- 2. nazionaleko **eskubaloi partidua** (M): **Arabacan - Usurbil E.T.**
- Nesken errejional mailako **futbol partidua** (N): **Usurbil F.T. - Oiartzun.** Harane futbol zelaian.
- Kadete mailako **eskubaloi partidua** (M): **Loiola - Usurbil K.E.**
- Jubenil mailako **eskubaloi partidua** (M): **Ormaiztegi - Usurbil K.E.**
- Kadete mailako **eskubaloi partidua** (M): **Usurbil K.E. - Leizaran.** Arratsaldeko 16.00etan Oiardo kiroldegian.
- Jubenil mailako **eskubaloi partidua** (M): **Usurbil K.E. - Leizaran.** Arratsaldeko 17.30etan Oiardo kiroldegian.
- 2. nazionaleko **eskubaloi partidua** (M): **Usurbil K.E. - Sestao.** Arratsaldeko 19.00etan Oiardo kiroldegian.
- Aitzaga elkarteak antolatuta, lau eta erdi barruan, **eskuz binakako partiduak** pelota goxoarekin. Ilunabarreko 20.00etan hasita.

**AZAROAK 8 igandea**

- Hondartzako futbol txapelketa Kontxako hondartzan: **Aginaga Sagardotegia- Bar Nestor.**

Emaitzak**Futbola****Urriak 17-18**

Usurbil F.T 1 Elgoibar 1 (1.R.)
Euskalduna 0 Usurbil F.T 5 (ju.m)
Allerru 3 Usurbil F.T 0 (n.)
Usurbil F.T 1 Orioko 8 (k.m)

Urriak 24-25

Urki 0 Usurbil F.T 7 (1.R.)
Urnieta B 0 Usurbil F.T 2 (ju.m)
Usurbil F.T 0 Ostadar 0 (n.)
Usurbil F.T 0 Añorga B 3 (k.m)

Eskubaloia**Urriak 17-18**

Usurbil K.E. 14 Portugalete 33 (2.N.)
Bergara 13 Usurbil K.E. 20 (ju.n)
Urnietako 9 Usurbil K.E. 7 (ka.n)

Urriak 24-25

Deusto 26 Usurbil K.E. 29 (2.N.)
Usurbil K.E. 18 Donibane E. 16 (ju.m)
Zestoa 5 Usurbil K.E. 22 (ju.n)
Usurbil K.E. 14 Donibane E. 18 (ka.m)
Goierriko 6 Usurbil K.E. 9 (ka.n)

Hondartzako futbola**Urriak 18**

Aginaga Sag. 2 Frudisk 4

Urriak 25

Eguzkiaren L. 1 Aginaga Sag 0

Laburdurak

R.: errejionalak ka.: kadeteak
N.: nazionala n.: neskak
ju.: jubenila m.: mutilak

**ZURE IZEN-ABIZENAK EUSKALDUNDU NAHI BADITUZU,
ETOR ZAITEZ GUREGANA, GUK LAGUNDUKO DIZUGU!**



Kale Nagusia 37
Telf.: 943 36 03 21




USURBILGO UDALA

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Garai bateko Asteasuinzar



Joxe Aburruza Agirre

- 68 urte ditu
- Luzuriagako langile izandakoa
- Txikierdiko Txuloenea baserrian bizi da

Inoiz edo behin entzungo zenu-
ten Asteasuain izena. Eroski egin
behar zutela esatean, Txikierdi
edo Urbarte hitzak alde batera
utzi eta Asteasuainzarko lurrak
aipatu zituzten. Gaur egun
Txikierdi dena Asteasuainzar zen
garai batean. Ez orain dela 40
urte, ezta 70 ere, duela 900 urte
Usurbilgo sailetan, Gurutzegi eta
Troia erreken artean zegoen auzo
bat omen zen.

Lehenago Asteasuainzarren edo
oraingo Txikierdin bazen, eta
bada oraindik, Asteasuainzar ize-
neko baserri bat. Bere garaian
zeresan haundia sortu zuten base-
rri honen inguruan sortutako ikami-
kek, baina gaur egun inork gutxi-
daki non dagoen baserri hau.
Gaur egun Txuloenea deitzen
zaion etxea, gure etxea,
Asteasuainzar zen garai batean
eta geroztik hartu izan du
Txuloenea izena, zuloan dagoela-
ko seguruenik.

Asteasuainzar baserriaren bila
errotzen ibili ziren orain dela urte
batzuk eta liburu bat egiteko ga-
raian ez zuten aurkitu. "*Astea-
suainzar non dago?*" galdetu zigu-
ten, "*gurea da Asteasuainzar*",
erantzun guk, "*zuena al da? Hain-
beste denbora ibili gara horren
bila eta zuena izan azkenean*".

Baserri honen inguruko auzia
famatua izan zen bere garaian.
XVI. mendean, 1567-1572 ingu-
ruan Felipe II.aren auzitegira iritsi
ziren hemengo kontuak. Garai
hartan Atxegatarrek ziren nagusi
Usurbilen. Ahaide nagusiak ziren
eta erretorea ere hauek aukera-
tzen zuten. Garai honetan
Atxegako nagusiak D. Ramus de
Arrillaga izendatu zuen erretore
eta hau izan zen, gotzaiaren bai-
menarekin, Asteasuainen parrokia
berria sortu zuena.

Gaur egun Babiloni deitzen den
etxea Asteasuaingoa zen, bere
taberna, benta, errota, ola eta
guzti. Urte hauetan eliza berri bat
sortu nahi izan zuten, eta baita
lortu ere. Asteasuain auzo garran-

tzitsua zen garai hartan eta As-
teasuainzar Usurbilgo etxerik
nagusienetakoa. Urte haietan D.
Martin de Bengoa zen nagusia.

Asteasuainen mezak ematen
hastea ordea, ez zuten begi onez
ikusitako jauregiko nagusiek.
Babiloni leku bakartian omen
zegoen. "*Nola eliza toki bakartian,
ibaiaren ertzean, taberna eta bur-
niolaren inguruan?*" Honela hitz
egin omen zuten Atxegatarrek.

Honela bada, Atxegatarrek
auzitan sartu zituzten Asteasuain-
zarrekoak. Auzi honetan Ganboa-
tarrak ere agertzen dira,
Asteasuainzarrera suhi etorri bai-
tzen Ganboa. Sendi haundi eta
indartsua zen, baina dena alferri-
kakoa izan zen Atxegatarren aur-
ka. Hauen aldeko erabakia hartu
zuen Felipe II.aren auzitegiak eta
Asteasuainzarreko ateak irekitzea
izan zen zigorra. Asteasuain-
zarreko jabeak ezer gabe gelditu
ziren, beren ondasun gehienak
kendu baitzizkieten. Sagastiak,
gaztaindiak, hariztiak, soroak,
erroten errentak, sukaldeko erre-
mintak, ohialak, silak, kutxak,
auspo haundiak... ia ezer gabe
gelditu ziren auziaren ondoren.

Bere garaian garrantzitsua izan
zen auzi hau. Asteasuain izena
behin eta berriz agertzen da
dokumentuetan, baina Astea-
suainzar izena zuen garai hartan
baserriak. Nik, hori argitu nahi
nuen: gaur egun Txuloenea dena
Asteasuainzar zen lehen.



Zubietako Herri Batzarraren urteko balantzea

Zubietako Herri Batzarraren Zarattegiko 14. artikulua agindutakoa betez, joan den urriaren 20an Bilkura Nagusia ospatu zen Alamandegiko udal aretoan, eta bertara Usurbilgo eta Donostiako agintariak inguratu ziren. Bileraren helburua bikoitza zen: batetik, Herri Batzarrak 1998an egindako lanaren berri eman zien zinegotzi eta alkateei; bestetik, datorren urterako asmoak mahairatu ziren, ahal izatera udal aurrekontuetan jasoak izan daitezzen.

Ez dago beste horrelako Batzarrak Gipuzkoan. Zubietakoa, gainera, udal baten menpean ez, baizik eta biren pean dago. Gauzak horrela, jendeak normalizat hartzea zaila dela dio **Xabier Arregi** Zubietako alkatea. *"Zubietako horiek..., Zubietako zera hori, talde edo dena delako hori..., horrelakoak entzuten ditugu maiz. Eta, egia esan, ez gaitu harritzen. Baina aurrera jo behar dugu, gure burua ezagutzera eman, eta erakunde serioa garelako erakutsi".*

Bide horretan pausoak ematen ari dira. Aurten, adibidez, Zubietan UEMAn sartzeko eskabidea egin dute, eta harrera ona jaso ere bai. Beren erakundearen irudia eta identifikazio-ikurrak lantzen saiatu dira, eta azpiegitura antolatzeari garrantzi handia eman diote. Hala ere, gabeziak ez dituzte alde batera uzten. *"Besteak beste, laguntzailerik ez izateak dezente zailtzen du gure funtzionamendua".*

Gizarte eta kultur arloari dagokionez, epe motxera begira, herri-dinamika eratzea da beraien helburu nagusia. *"Gure iritziz, badira herri-dinamika pizten ari dela nabarmentzen duten adierazleak. Herriko ekitaldietan umeak, gazteak eta helduak parte hartzeko prest ageri zaizkigu. Hortxe ditugu, esandakoaren adibide, pilotaren inguruan dagoen mugimendua bizia, herri-antzerkiak egiteko*



erakutsi den gogoia, "Kimu Berriak" taldea, haur-eskolaren inguruko gurasoen ekimena, e.a." Bestalde "Zubietan, agiritan" proiektua da eskuartean duten egitasmo nagusia. "Guretzat, etorkizunari begira egindako apustua da proiektu hau, zer izan garen eta zer izan behar dugun erabakitzeko balio beharko ligukeen".

Obrei dagokionez, obra batzuk egin dira eta beste batzuk egiteko daude. Aurtengo urtea bukatu aurretik bide nagusiko errebuelta pare bat konpondu nahi dituzte. Bi udalek onespenera eman dute horretarako.

Hirigintzan momentu erabakigarria.

Momentu erabakigarria da Zubietarentzat honako hau. Batetik, "Zubietako zabalpena" izenez ezagutzen den Plan Partzialari behin-behineko onarpena eman zaio Donostiako udalean. Bigarrenik, deslindaren proiektua gauzatze bidean da, eta okerrik ez bada, aurten bertan finkatuko da. Hirugarrenik, hipodromo atzean eta Bugati inguruan sekulako inbertsioak eta mugimenduak sumatzen dira. *"Merkabugati egokitu zaigu oraingoz baina, itxura guttien arabera, hori hasiera besterik ez da izango".* Eta azkenik, Diputazioak bultzatutako

Donostialdeko Plana ere ate joko datorrela ematen du, nahiz eta oraindik ez dagoen dokumentu publikorik. *"Esan digutenez, plan horrek aldaketa asko eta sakonak proposatuko ditu Zubietan".*

Datorren urterako proposamenak.

Egitasmo berrien arloa pasata, hauek dira udalei egin dizkieten eskaera nagusiak: Lizarragako kurba zabaltzeko proiektuarekin hastea (onartu egin zen), plaza eta ingurua txukuntzeko proiektua garatzea (datorren urtean horri ekitea ezinezkoa izango zela esan zitzaion), frontoi estalia egiteko pausoak ematen hastea (oraingoz zaila ikusten zen horretan sartzea, baina ideia batzuk lantzen hastea egokitzen hartu zen).

Saneamenduari dagokionez, datorren urtean ur zikinak biltzeko proiektu bat jarriko da martxan. Proiektu hori ez da batzarrak eskatutakoa, ez baitu Zubietan osorik hartzen, baina bada zerbait.

Hemen aipatu diren kontuen inguruan informazio zabalagoa jaso edota iritziak eta proposamenak eman nahi izan ezkeror, horretarako egokiera izango da datorren azaroaren 7an, arratsaldeko 16.00retan, Zubietan egingo den herri-asanbladan.

Gorostitxo eztiola elkarteak label bila

Eztia garbitu eta ontziratu nahi duten erlezain txikiak badute nora joana. Orain dela hilabete batzuk sortu zen "Gorostitxo" eztiola elkarteak asko errazten dizkie gauzak. Julian Bengoetxea eta Joxe Mari Alduntzin usurbildarrak dira 17-18 eztagile biltzen dituen elkarte honen aitzindariak eta egoitza bera ere herrian dute: lehen zabor erretegia zegoen lekuan hain zuzen.

Joxe Mari Alduntzinek urteak daramatza erle eta ezti munduan, **Julian Bengoetxea**, aldiz, hasi berria da. Orain dela bi urte inguru biak elkartu eta ezti garbitu eta ontziratzeke leku bat egitea pentsatu zuten. Arratzain bidean zegoen zabor erretegi zaharra zuten buruan. Hura izan ziteke eztiategia jartzeko leku aproposa. Pentsatu eta egin. Udalean txabola eraikitzeke baimena eskatu eta bien arteko lanak bere fruitua eman zuen.

Osasun baimenak lortu aurretik egin beharrekoak ziren lan haiek, erlauntzatik ontzirainoko bidean ezti lantzeko osasun baldintzak betetzea ezinbestekoa baita. Honela ekin zioten bi hauek ibilbide honi, baina guztia martxan jarri zutenean eztiategi hura beste erlezain guztiei zabaldu baharra ikusi zuten.

Pixkanaka-pixkanaka erlezain txikiak hara joaten hasi ziren. Aurrena bat, gero bes-



tea... konturatzerako, iraila-urria inguruan erlezain asko joaten zen zentrifugadoran ezti garbitu eta ondo heltzean ontziratzerako.

Honela, bada, leku hau antolatzen hasteko garaia zela konturatu ziren Julian eta Joxe Mari. *"hainbeste erlezain txiki ibiltzean guztion artean aurrera ateratzeko antolaketa serio bat beharrezkotzat jo genuen. Erlezain baten izenarekin funtzionatu beharrean erlezain txikiak irtenbidea emango liokeen elkarte bat sortzea erabaki genuen"*.


Usurbilgo lau erlezain daude elkartean

Horretarako sortu dute "Gorostitxo" elkarteak. Hernani, Donostia... eskualdeko 17-18 erlezainek osatzen dute momentuz eztiola elkarte hau. Usurbildarrak ere badaude tar-

tean. Aurrez aipatutako **Joxe Mari Alduntzin** eta **Julian Bengoetxeaz** gain, **Luis Mari Bengoetxea** eta **Andoni Muguruza** ere elkarte honen barruan daude. Norberak bere aldetik ontziratzen du ezti, honekin nahi duena egiten du, baina guztiek Arratzain bidean duten "txabola" eraikitzen dute ezti prozesua aurrera eramaterakoan.

Elkarteak sortu berria da. 1998. urteko eztiak ere atera dituzte erlezain txiki hauek, baina aurrerantzean ez dute geldirik egoteko asmorik. Oraingoz euskal labelaren eskaera egin dute eta orain erantzunaren zain daude. Zarautz eta Irunen badira labeldun eztiak, Gorostitxo elkartekoek izan nahi dute euskal labela lortzen duten hirugarren erlezainak.

Josu Aranberri



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



TABERNA
"GYRE PRESOK"



HERRIAN BEHAR DITVGV"

Irazu kalea, 12
Tlf: 943 36 02 17

Erremedioen txokoa



Bronkitisa sendatzeko bada erremedio erraz bat. Ez bronkitisa sendatzeko bakarrik, bronkioak garbitu nahi dituenak ere ez du medikuarengana joan beharrik izango. Udaran bildu eta ondo lehortu ondoren hor nonbait daukazun berbena belar eskukada bat hartu behar da lehenengo eta txiki-txiki egin. Txikitzen ari garen bitartean olio berotzen jarri eta bero-bero dagoenean berbena prejitzen hasi behar da. Prejitzean arraultza zuringoa bota eta tortilla bat egin. Tortilla egitean zapi batean jarri eta bularrean jarrita eduki gauean. Askoz hobeto sentituko zara hurrengo egunetan.


Lehiaketa

Ezagutzen al dituzu argazkian dauden horiek?



Horietako bosten izenak paper batean idatzi eta bidali Noaua! Kultur Elkarteak Kale Nagusian duen egoitzara. Asmatzaileen artean **Zumetan** bi lagunentzako afaria zozketatuko da.

Aurreko aleko lehiaketaren erantzunari dagokionez, argazkian dagoen harmarria **Atxega jauregiko harmarria** da. Asmatzaileen artean zozketa egin ondoren, **Idoia Aranburuk** izango du Sekañan afaltzeko aukera.



Ekaitz

Bideo eta ARGAZKIak

JARRI EZAZU ZURE PUBLIZITATEA HEMEN!

URRIAK 30 ostirala

- **Senideaken manifestazioa** arratsaldeko 20.00etan. Frontoitik irteera.

AZAROAK 1 igandea

- Aitzaga elkarteak antolatuta **IV. eskulangintza azoka eta erakusketa** izango da goiz partean pelotalekuan.

Sagar erakusketa, Aginako piperrak, eztigilea, euskal zeramika, egur taila, harri landua, maketak, apaingarriak, bastoigilea, ukendugilea... denetik aurkituko duzu azoka honetan.

Uztarri erakusketa ere izango da eta taloa eta zizarra ez dira faltako.

AZAROAK 2 astelehena

- Aurten azkenengo aldiz odola emateko aukera izango da anbulategian. **Arratsaldeko 19.00etatik 21.00etara odola emateko aukera** izango duzu.
- **Euskal Herria Askatu!ren kozen-trazioa Bordatxo aurreko** errotondan arratsaldeko 20.00etan

AZAROAK 4 asteazkena

- Aitzaga elkarteak antolatuta **"Gure ama lurraren defentsa" hitzaldia**. Itoizko koordinakundeko partaideek **Itoizko urtegiaren arazoa zertan den** azalduko dute. Udarregi zaharrean izango da hitzaldia 19.30etan hasita.

AZAROAK 7 larunbata

- **Herri asanblada** egingo da **Zubietan** Zubietako Herri Batzarraren jardueraren berri emateko. 16.00etan.

AZAROAK 9 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!ren kozen-trazioa Bordatxo aurreko** errotondan arratsaldeko 20.00etan

LANPOSTUAK

- ✓ **Usurbilgo AEK euskaltegian irakasleak behar dira.** Usurbilgoak badira hobe. Informazio gehiago euskaltegian bertan. TIF. 943-362001
- ✓ **Irungo udalak Hiritarra atenditzeko zerbitzuan informazio eta tramitazio laguntzailea, hiritarra atenditzeko zerbitzuaren ardura duna, antolakuntza teknikaria, planteamenduko arkitektoa, planteamendu, informazio eta programazio teknikaria eta hiri disziplinarako teknikaria** behar ditu. Eskeraek aurkezteko epea Azaroaren 10a. Informazio gehiago G.A.O.ko 199 zenbakian.
- ✓ **Donostiako Uliazpi fundazioak gizarte langile lanpostua** aldi baterako betetzeko lehiaketa- oposiziorako deialdia egin du. Informazio gehiago G.A.Oko 202 zenbakian.

OHARRAK

- ✗ **Ikastolako umeek kalezarren autobusa hartzen duten parandan giltzak galdu ziren pasaden urriaren 16an.** Opel marka duen kotxeko giltza eta beste laupabost giltza ditu. Aurkitu dituenak deitu 943-361222-ra.
- ✗ **Usurbilen pisua alokatuko nuke** lagun pare bat edo, prest egongo balira. Deitu 943-360439 telefonora. (ez banago mezua utzi)
- ✗ **Pisua alokatzen da** Usurbilen, Bizkarre kalean. Deitu 943-366485 telefonora

IV ESKULAGINTZA AZOKA ETA ERAKUSKETA

- Usurbilgo sagardo egunaren lagunak
- Agina piperrak
- Martin Agirresarobe eztigilea
- Xanti Illaramendiren keramika
- Joxe Luis Elexperen egur-tailak
- Antonio Leonen harri landua
- Joxe Azurmendiren maketak
- Maite Agirresaroberen apaingarriak
- Manuel Utrera bastoigilea
- Jabier Argaiiz Iufferra
- Euskal presoek eskulanak
- ...

Azaroaren 1ean frontoian

"AEK" EGUNA LEGUTION

Azaroaren 8an AEK eguna egingo da Legution. Egun osoan zehar hainbat ekitaldi izango dira eta ez duzu asperzeko denborarik izango. Goizeko 11.00etan hasita trikitilariak, txaranga, zanpantzarra, bertsolariak, kale antzerkia eta Niko Etxart eta Furundaren kontzertua izango dira besteak beste. Arratsaldean, berriz, talde ugariaren abestiak entzun ahal izango dira: Betagarri, Lorelei, Trikitixa Kontrairo, Zea Mays eta bukatzeko izotz taldea.

BERTSOLARITZA IKASTAROA

Bota Punttuba bertso eskolak antolatu du 1998/99 ikasterterako. Azaroaren 4an hasiko da 20.30etan. Egun horretan Udarregi zaharrera joan behar du ikastaroan parte hartu nahi duenak, eta han mailaren arabeko taldeak egingo dira.

BAZKIDE TXARTELA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO




Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrantea (20 digito): _____

420

bazkide ditu Noauak.
 Zu ere egin zaitez
 bazkide

ELDUAIEN-ek


*Ingeleserako eta alemanierazko bi irakasle filologo
jartzen ditu zure eskura!*



Haur, gazte eta helduentzako maila guztietako klaseak eskaintzen ditugu; Otik hasi eta maila altuenetaraino.



THE ARCH OF EUROPE
GOLD STAR AWARD
FOR QUALITY



Euskara oinarrian hartuz, ingelesa eta alemaniera ikasteko aukera izango duzu herrian!



E-mail: elduaien infomail.es

Zubiaurrenea 6, behea

Tel.: 943 37 14 02

Usurbil

Usurbilgo

OFIZIOAK

zure eskura dituzu

Aroztegiak

BEREZIARTUA

Egurrezko eta aluminio-egurrezko
leihoak
Izpira etxea
Aginaga
☎ 943 37 15 71 - Faxa 36 01 59

GONSABI S.L.

Ugarte, 9
Kalezar
☎ 943 37 10 61

IBARGOEN, JOSE RAMON

Neurriko altzariak
Errotaberri kalea, 3 - Osinalde
☎ 943 36 14 48 - 36 31 24

IKUTZA, JOSE MARI

Ugarte, 4
Kalezar
☎ eta faxa 943 37 12 21

OLASAGASTI, KETXU

Gurutze etxea
Kaleberri
☎ 943 36 12 13

Iturgintza

LATAILLADE, IÑAKI

Ariztitxo kalea, 8
Atxegalde
☎ 943 36 33 48 - 36 26 35

ORBEGOZO, JAVIER

Iturgintza, gasa eta berogailuak
Bizkarre kalea, 1 - 1. esk.
Kaleberri
☎ 943 37 29 37 - 36 59 26

OSTAPE

Ostape etxea
Kalezar
☎ 943 36 16 95

PORTULARRUME, XEBERO

Kale Nagusia, 10
Kaleberri
☎ 943 36 46 37

Elektrizitatea

IZAGIRRE, MIKEL

Goiz-Argi etxea, 37
Kalezar
☎ 943 36 50 95

ARGILAN

Instalakuntza elektrikoak
Kontzeju zaharra, 13
Kaleberri
☎ 943 37 02 74

Igeltseritza

ARANZAZISTROKI, ANDRES

Igeltseritza eta pintura
Aldapatxo etxea
Kalezar
☎ 943 36 24 71 - 36 05 50

ERRAZKIN C.B.

Kale nagusia, 1
Kaleberri
☎ 943 37 26 79
Santuenea, 8
Kontzeju zaharra kalea, 1
Kaleberri
☎ 943 36 51 25

Eskaiola

NORIEGA, EUGENIO

Erdiko kalea, 12
Atxegalde
☎ 943 36 56 65

ELORZA, JOSE ANTONIO

Galtzaragaña 2 - 2.B
☎ 943 37 34 70

Ofizioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu! **943 36 03 21** telefonora!